

Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



Arantzazu harri da

Jose Adrian Lizarralde ematen digu Arantzazuko Andre Mariaren irudiaren berri historikoa eta horren deskripzio ikonografiko eta eskultoriko-teknikoa, bere *Historia de la Virgen y de la Santuario de Arantzazu* liburuaren lehen kapituluan.

Irudiaren bestelako deskripzio eskaintzen digu Gandiagak: poetikoa, metaforaz eta doinuz betea; beti bere gaztetako aurkikuntzako harriduraren ildotik: "Harrizkoa zara!" Arantzazuko harkaitzen harrizko lorea-edo da irudi txiki hori, harkaitz arteko elorri gai-

nean jarria. Arantzazuko Andre Maria zerutik agertua ez, bertako lurretik, harkaitzetatik, elorrietatik sortua ikusten du Gandiagak.

Baina Arantzazuko Andre Mariaren irudian harri hotzak eta irri beroak bat egiten dute: "samur eta irribarretsu" ageri da. Harriaren leialtasuna du, eta irriaren ezitia. Ohartu zaitetz olerkiko hitzen soinu ozenen jokoaz: harri, irri, adoraragari, harrigarri, elorri; eta musika ozen eta gogor horren barruan, Andre Mariaren irudiari darizkion soinu gozoak: leial, adi, ezitia... Harria irri bihurtua!

ARANTZAZU HARRI DA
ta harri zara zu
–harri harrigarria–,
harrizko Andre Mari,
samur eta irribartsu
adoragarria,
harrizko leialtasun,
adikor, ezitia,
elorri harritu,
betiko irria.